

Pako Sardupe

IDAZLEA

## Humboldt: hizkuntza eta pentsamendua

**Z**er harreman dago hizkuntzaren eta pentsamenduaren artean: gure gogoan lehenbizi pentsamendua dago eta gero hitzak baliatzen ditugu haren berri emateko? Hizkuntzak laguntzen dio pentsamenduari ala bi gauza beregain dira? Joxe Azurmendi-ren trilogian azkena argitaratu den honetan, galdera horiei Aristotelesgandik hasita Humboldtengana eta pentsalari garaikideengaino zer erantzun eman zaizkion irakurtzen ari naizela, gogora zetorkidan zenbateraino izan ohi dugun egina artikulua buruan, hura idazten hasi baino lehen, eta zenbateraino eramaten gaituzten esaldiek berek, zenbateraino kontrolatzen dugun idazkuntza.

Aristotelesentzat alde batean (1) mundua edo gauzak daude. Bestean (2) arima. Bion artean (3) munduak ariman eragindako zerak, eta horien sinbolo edo zeinuak (4) hizkuntza eta idazkuntza. Aristotelesentzat konbentzionala bakarrik hizkuntza eta idazkuntza da, beste guztia gizon-emakume guztiontzat berdina. Humboldték berriz bereziki azpimarratzen du hizkuntzen arteko diferentzia ez dela “hots eta zeinuen” bakarrik, eta Aristotelesi ez ezik hari jarraitzen diotenen tradizio nagusi arruntari egiten dio aurre.

Primeran ohartzen zara liburu honetan zehar mendebaldeko kultura nola datorren Greziatik Chomskyrengaino eta gurean Txillardegirengaino.



DANI BLANCO

Jauzi bat egin liburuaren ataletan eta Nazioa deritzanera etorriz, ikasten dugu Goethe-ren ustean, 1797an, alemanak alfer-alferrik ari zirela, inoiz ez zirela nazio bat izango (Iraultzaren adieran, hots herrijende burujabea), eta Madame de Staël-ek, era berean alemanak ez zirela nazio bat epaitu zuela bere bidaiakoan, eta alemanek ez zutela karaktererik. Baina haiek Napoleonen aurka armetan altxatu zirenean iritzia zuzendu zuen; eta, ohar hau eranstean du liburu egileak: nazioaren kontzeptu epiko bat da inondik ere Iraultzara horretan, zerikusi oso gutxi baitu horrek Herder edo Humboldt-en nazioarekin.

Mendebaldekoek nagusiki, baina Ekialdeko hizkuntzek, pentsamenduek eta filosofiek ere badute lekua. Shôko Kishitani andre japoniarrari buruzko zatiak merezi du irakurtzea: Hiroshimako bonba atomikoaren biktimei eskainitako monumentuko idazkuna zein zaila den alemanera edo beste ezein hizkuntza indogermaniarretara zinez itzultzen: “Anai-arreba maite zenduok! Jainkoak eman biezaguzuei atsedean jabala eta gu bizioi oker honetatik jagotea!”. Chang Tun-Sun-ekin ikasten dugu hizkuntzak berak daramatzala txinatarrak eta mendebaldarrak filosofia –logika, metafisika– ezberdinetara.

Segur aski hiruretan aberatsena, azkena argitaratu baina lehena idatzi zen hauxe da. ■

«  
Humboldték azpimarratzen du  
hizkuntzen arteko diferentzia  
ez dela ‘hots eta zeinuen’  
bakarrik, tradizio nagusi  
arruntari egiten dio aurre  
»

## HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Zaizkit jendearen hamaika erabaki. Era berean, hainbati nire hainbat ere konpreni ezinak zaizkiela argi dut. Egun osoa pasatu dut bozka mahai batean eta aukera izan dut ezagutzen ez nuen zenbaitekin iritziak trukatzeko. Langile euskaldun batekin zabal mintzatu naiz. PNBkoa bera, frantses eskuindar batek zuzendutako zerrendan partaide. Alderdiak erabakitakoa betetzea zuela xede esan dit, nahiz eta pertsonalki gustukoa ez izan agindutakoa. Diziplina. Konparazioz, harro sentiarazi nau, gure kasuan abertzale zerrenda herritarra osatu eta elkarrekin gustura gabiltzaneren artean aurkeztu baika-

## Ilogikoak

ra herriaren aurrean. Emaitzak eza-gututa, bere zerrendak gureak baino boz gehiago bildu ditu. Hala ere, ez aski gobernatzeko. Bera, uretan azukre bertan urtuko den bezala, gu batzarrean bildu gara bigarren itzulirako estrategia erabakitzeko. Ez dakit asmatuko dugun eta bozkak irabazi, baina bidean eman gara helburua garbi eta gure artekoa berrindartuz. Ezagun berriak telefonoz deitu dit gure erabakiaren berri jakin nahian. Ez da bere erabakia izan. Berriz ere, beste norbaiten agindua bete du. Ez diot deus eman, ez da fidagarria. Ez zait haserretu, badaki jakin tranpan dabilela. Jokatu gabeko irabazle izan nahia baino gauza zozoagorik ba ote da? ■